

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA jaunak,

Donostiako Udaleko idazkari nagusia naizen honek,
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián,

Honakoa ziurtatzen dut:
Certifico:

Donostiako Udabatzak, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita hamarrean egin zuten Ohiko Bilkuran, **BILDU taldeak kaltetun aitortuta diren GAL eta beste talde batzuen biktimei dagozkien kalte-ordainak emateari uko egitea dela eta, erakunde adierazpen hau onartu zuela, PNV eta PSE taldeek (adostutako) eta PNV taldeak aurkeztutako eta Udabatzak onartutako zuzenketekin, azalpen zatiaren 3.paragrafoa aldatuaz eta ebazpen zatiaren 1.go eta 2. puntuak aldatuaz (bakar batean bihurtuaz) eta 3. puntua aldatuaz. Testua honela idatzita geratu da:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día treinta de abril de dos mil catorce, aprobó la siguiente **Declaración Institucional presentada por el Grupo BILDU sobre la negativa a abonar indemnizaciones a víctimas del GAL y otros grupos que ya habían sido reconocidos como damnificados, que incorpora las enmiendas aprobadas, presentadas por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE (transaccionadas) y EAJ/PNV, de modificación del 3.er párrafo de la parte expositiva y de modificación de los puntos 1 y 2º de la parte dispositiva (quedando en un único punto) y modificación del 3.er punto de la parte dispositiva, quedando el texto como sigue:**

"Orain egun batzuk jakin genuenez, Espainiako estatua -zehazki, Barne Ministerioa- urratzen ari da Euskal Herrian hainbat urtez izandako gatazkaren biktimen eskubideak, eta gertaera zinez larria dela irizten diogu.

"Hace pocas fechas hemos conocido que desde el Estado español y más en concreto desde su Ministerio de Interior se están vulnerando derechos a víctimas del conflicto que ha vivido Euskal Herria durante tantos años, lo que es sumamente grave.

Eusko Legebiltzarrean bertan, izen handiko kideek gai honi buruzko iritzia eman dute, eta, besteak beste, adierazi

Hace pocas fechas en el propio parlamento vasco hemos conocido las opiniones de prestigiosas personalidades

dute litekeena dela Espainiako barne ministro Jorge Fernández Díazek prebarikazio delitua egin izana, kalte-ordainak ukatu baitizkiete aldez aurretik kaltetun aitortutako GAL eta beste talde batzuen biktimei.

donde, entre otras muchas cuestiones, han manifestado que el ministro español del Interior Jorge Fernández Díaz pudo haber incurrido en un delito de prevaricación por la denegación de indemnizaciones a varias víctimas de los GAL y otros grupos que previamente ya habían sido reconocidas como damnificados.

UPV/EHUko Zigor Zuzenbideko katedradun Ignacio Muñagorri egindako adierazpenak dira horren erakusgarri. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean agerraldia egin zuen, hain zuzen ere, Zigor Zuzenbideko irakasle **Ana Pérez Machiorekin**, eta txostena aurkeztu zuen GAL, Batallón Vasco Español (BVE) eta Triple A taldeen biktimei laguntzak ukatu izanari buruz; txosten horren arabera, laguntzak ukatu izanak agerian uzten du legea betetzeko borondaterik eza, diskriminazio jarrera eta, zoritxarrez, oraindik badela politikaren esparruan legeak bere interesen arabera erabili nahi duenik, baita horretarako aitortutako biktimen eskubideak urratu behar badituzte ere.

Manifestaciones como las realizadas por el catedrático de Derecho Penal de la UPV/EHU Ignacio Muñagorri, quien compareció ante la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco en compañía de la profesora de Derecho Penal **Ana Pérez Machío** para presentar un informe referente a la negación de ayudas a víctimas de los GAL, el Batallón Vasco Español (BVE) y la Triple A, demuestran que no hay voluntad de cumplir con la Ley, que existe una práctica discriminatoria inaceptable y que, desgraciadamente, hay todavía quienes quieren utilizar desde la política las leyes a su antojo, siendo capaces de vulnerar los derechos a víctimas reconocidas.

Eskuin muturreko talde horien 30 biktima inguruk laguntzak eguneratzeko eskaria egin zuten; aldez aurretik jasotzen ari ziren laguntzak, biktima aitortuta zeudenez, eta, orain, aldiz, ukatu egin dizkiete.

Son alrededor de 30 víctimas de estos grupos de la extrema derecha habían solicitado la actualización de las ayudas que ya percibían al haber sido reconocida su condición y a pesar de ello les ha sido denegada la indemnización y eso es inaceptable.

ERAKUNDE ADIERAZPENEA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Espainiako Gobernuari terrorismoaren biktimen erreparazio prozesuetan berdintasunez jokatu eta ez baztertzeko printzipioa bete dezala eta, beraz, espainiar legediak garatutako arau oinarriak aintzat hartuta, terrorismoaren biktimen izaera onartuta duten edo izan dezaketenei kalte ordainak ukatzea zuzen dezala. Gainera, Eusko

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- El pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno de España a que cumpla con el principio de igualdad y no discriminación en los procesos de reparación de víctimas, y en consecuencia y en base a los principios normativos desarrollados por la propia legislación española, corrija la denegación de indemnizaciones a víctimas que tengan o puedan tener



Jaurlaritzarekin, indar politiko guztiekin eta terrorismoaren biktimen elkarteekin adostuko ditu biktimei diru laguntzak emateko irizpideetan edo neurrietan egin daitezkeen aldaketak, jatorria gorabehera.

2.- Donostiako Udalak bere aitortza erakusten du biktima guztientzat eta eskatzen du bakea eta berradiskidetzea behin betiko lortzeko beharrezko urratsak egin daitezela, eta biktima guztien, jatorria edozein izanda ere, eskubideak errespetatzeko orduan egin den edo egin daitekeen edozein bazterketa edo bidegabekeria buka dadila.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, **Egiaztagiri** hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatezak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamalauko maiatzaren bederatzian.

ALKATEAK O. E. /

V. ° B. ° DEL ALCALDE,

Juan Carlos Izagirre Hortelano

reconocida esa condición, consensuando además con el Gobierno Vasco, todas las fuerzas políticas y las diferentes Asociaciones de Víctimas las modificaciones que puedan realizarse en los criterios o medidas de concesión de subvenciones a víctimas, independientemente de su origen.

2.- El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián muestra su reconocimiento a todas las víctimas y solicita que se den pasos para alcanzar definitivamente la paz y la reconciliación, así como terminar con cualquier situación de discriminación o agravio que pueda haberse producido o pueda producirse en el respeto a los derechos de todas las víctimas, independientemente de su origen.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta **Certificación**, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a nueve de mayo de dos mil catorce.

